

## **URNIETA / Bihar arratsaldean hasiko da 'Ipuin Lapikoa' ekimena herriko Liburutegian**

Bihar hasiko da herriko Liburutegian 'Ipuin lapikoa' ekimen berria. Lekaio Kultur Etxearen eta Udal Liburutegiaren eskutik, egitasmo honek haurren irakurzaletasuna bultzatzea du xede nagusia, ipuin kontalariak gureru gonbidatuz.

Hilean behin, bigarren asteazkenean hain zuzen, ipuin kontalari bat gerturatuko da ipuinen lapikoari eragiteko prest. Bihar izango da Ipuin lapikoaren lehenengo hitzordua, arratsaldeko 17:00etan, Koruko Zurutuza herriko ipuin-kontalariaren eskutik. Saio hau 6 eta 9 urte arteko haurrei zuzenduta dago. Saioak euskaraz burutuko dira. Kontuan izan emanaldia hasi ondoren ezingo dela Liburutegiko haurrentzako gelara sartu.